


KRIKA

## Iraultzarako zirriborroak

Irati Majuelo

**P**ortugaleko Krabelin iraultzaren 50. urteurrena da aurtentzen, eta efemeridearen karira, Raquel Varela eta Robson Vilalbak egindako komikia euskaraz, gaztelaraz eta katalanez ekarri dute argitara Txalaparta, Verso eta Manifest argitaletxeek elkarlanean. Gure eskuetara *Herriak du gehien agintzen* izenburupean iritsi da, iraultza abiarazi zuen kantuari keinu eginez. Ordea, *Utopia* jatorrizko izenburuak laburbil lezake, halaber, komikiaren muina, iraultzak martxan jarritako begirada-irekiera eta gizarte justuago baterako ametsak jartzen baititu lehen lehen.

«Esan ohi da fikzioa errealtate baina interesgarriagoa dela. Iraultzetan, alderantziz



**HERRIAK DU GEHIEN AGINTZEN**  
Egileak: Raquel Varela eta Robson Vilalba.

Itzultzailea: Eskarne Mujika.  
Argitaletxea: Txalaparta.

gertatzen da, errealtateak gaina hartzen dio gure irudimenari». Betierekoa dirudien ordena iraultzeak sortzen dituen transformazio indibidual eta kolektiboak kontatu nahi ditu Raquel Varela eta Robson Vilalbarek lanak, krisi egoeretan irekitzen diren aldaketarako arrakalak aldarrikatzearekin bat. Kaosak mugimendua dakarren

gisan, Portugaleko herriaren bizipoza islatzen du, ideiak bor-bor, parte hartzeko grina biziz, «jendea hasi baitzen zituenera ere ez zekien premiak izaten». Etorkizuna orainean erabakitzeko premia, alegia.

Iraultzaren eguna eta ondorengo hilabeteetako eferbeszentzia bezain garrantzitsuak dira, hala ere, horra iristeko emandako pausoak. José umearen begiradatik abiatzen da istorioa, etxe xume batetik, eta gizon konprometitu eta ekintzaile izan arte igarotzen duen prozesua azaltzen da Portugaleko historia garatzearekin bat. Pertsonala eta kolektiboa batzen dira, beraz, komiki honetan, historia hizki larriz gertatzea posible egiten duten istorio partikularren bidez.

Hori hala, 67ko uholdeetan abiatzen da José nerabearengan elkartasunerako eta eral-

daketarako izpia, auzokoari laguntzeko beharra. Kolonietako gatazkek eta metropolian bizi zen pobrezia eta itomen politikoak pizten dute gerora haren politizazio prozesua, borroka anti-kolonialean eta gerraren aurkako posizionamenduan sustraitua. Iraultzaren bulkada eraldatzaileak eta ideia komunistek bultzatuta, azkenik, herriaren burujabetza urrats bat aurrerago eramateko saiakerak ikusarazten ditu liburua.

Fikziozko bitzita bat du oinarri, baina Portugal transformatzen parte hartu zuten milaka pertsonen borondatea irudikatzen du Josék; laguntasuna, herriarekiko maitasuna eta duintasuna oinarri, askatasuna entseatzeko ahaleginak ziren horienak. Zuri-beltzeko trazu bizkor eta zirrimarratsuz irudikatu dute egileek Portugalen jazo zen iraultza soziala, kasik zirriborro bat balitz bezala, egiteke dagoen horrek baitu mugiarazteko indarra. ●

KRIKA


## 'Publikoa ai do!'

Imanol Mercero

**I**puin ilustratu honek gure eskoletako gela bat deskribatzen duela dirudi. Baina orain-orainoa, ez haur ginen garai haietakoak: hamaika kultura topatzen diren lekuak dira orain ikasgelak, irakasle begi-zabalek bertan dabilzan haurrak eroso egoteko prestatuta. Ikasketa ezagutza bihurtuta, eta ikasmaterialaren ordean, garapenerako baliabideak eskainita.

Halakoxea da behintzat Euskal Eskola Publikoaren aldeko jaiaren kariatara argitaratutako ipuinean dakusaguna, *gelazkina* bihurtutako ikasgela batean gertatzen dena, azken aldiak irakasleek elkar ezagutzeko bidaia egitea proposatu dielako ikasleei partekatzen dituzten bezainbat kulturetara bidaia, denak euskaraz batzen baititu, eta bakoitzak bere ekarpena baitakar.

Narratzailea Mikaela da, Nikaraguan jaio zen neskatua, grazia handikoa eta ardura-



**MUNDUKETARIAK**  
Idazlea: Patxi Zubizarreta.  
Ilustratzailea: Jokin Mitxelena.  
Argitaletxea: Erein.

tsua. Protagonista, ordea, Harmony da, *gelazkinaren* kontu horrekin hasi zirenetik iheskor dabilenez, nahiko lukeen baino arreta handiagoa bereganatzen ari delako. Eta ikaspenik handiena irakasleak egingo du, uste batzuk aurreiritziak direlako, esaterako haurrak, maiz, gurasoen herrialdekoak ez baizik hemengoak sentitzen direlako, edo *hemengoagoak* bederen.

Eta hau dena gozo baino gozoago sentitzen den kontakizun batean. ●

KRIKA

## Formakuntza praktikoa

Imanol Mercero

**B**igarren izenburu gisa *Polinizatzaileak* ezagutu marrazketaren bidez duen liburu batek ezinbestean eskatzen du gure arreta. Ez da prezio hurrei marrazkiak eginaraztea gustatzen zaigulako, ez horixe, baizik eta naturaren ezagutzan murgiltzeko bide eroso bezain ezaguna proposatzen zaigulako.

Naturaren behatzaile izateko bidean baliabideak eskaintzen dituen *Adi natura* bildumaren parte da liburu hau, zeinetan formakuntza eta ezagutza eskaintzen zaizkien haur eta gazteei, oraingoz bost titulu dituen, edozein adinetako hasiberrirentzat alorreko sarbide gisa baliagarria ere badena.

Dituen 72 orrialdeak lau ataletan banatuta daude, marrazketa teknikan zentratuta lehenik, eta landa lanetarako behar den informazioa ondoren.



**KOLORETAKO INTSEKTUAK**  
Idazlea eta ilustratzailea: Maddy Astigarraga Bergara.  
Argitaletxea: Sua.

Ezaguna da natura behatzaileentzat oso beharrezkoa dela marrazketa, xede-animaliaren morfologia eta ohiturak deskribatzeko baliabide eraginkorra delako, zer-nolakotasunetan erabateko arreta eskatzen duelako. Liburuan hainbat teknika proposatzen dira eskua eta begia landu ditzagun.

Dena den, gogoratu liburu hau makulua baino ez dela; etengabeko praktika eta kemena norberak jarri behar ditu. ●

*W. Adorno (Ultimo round, 1969)* kontakizunak hiru oporralditan —Proventzako Signonen— etxean hartutako katua du ardatz. Adorno izena jarri zion idazleak. Parisen Flanelle katua zuen Cortazarrek, eta hura ageri da idazleak katuarekin hartu zituen argazki ezagunetan. Adorno, udako kale katua, literaturan ageri da. Kontakizun hasieran izenik gabeko Adorno katu librea da, beste hamar katurekin zaborte-gian aske dabilen animalia. Uda hasieran katuak idazlea aukeratzeko duenetik, Siagnonen oporretan dagoen bitartean, *bere* katua bihurtuko da. Kanpoko bitzita ederrari eutsiko dio animaliak. Bigarren udan, Adorno maite-mindu egingo da, nahiz eta idazleak ez dakien zertan bukatu den hori. Hirugarren udaren ondoren, Adorno sakristaua daraman anderearen katu gisa aurkituko du Cortazarrek; gaztarako abenturak bazterturik, jubilazioa hartu du Adorno katuak. Zerutik hurbil egotearen etxearen goxotasuna hautatu du. Materialista zerutarra bilakatu zaio *bere* katua. Oso testu berezia da Cortazarrek ondutakoa. Forma aldetik katuaren desbideratze moduko bat dirudi, eta katuaren erritmo bizia dugu narrazioan. Jazzaren erritmoari jarraituz jositako testuak —hainbeste idatzi zuen idazleak horretaz— katuaren sigi-saga bizkorra irudikatzen du.

Antzeko katu bizizalea du Bernardo Atxagaren *Paradisua eta katuak* (2012) artefaktuak. Arantzazun kokatzen du katu gris arraiaduna, zeinaren bidez jainkotiarra eta lurtarra den oroz hitz egiten den. Poetak katuari paradisuaz galdetzen dio: «Zer gehiago beharko zenuke paradisuaren sentitzeko? / *Sex!* Egin zuen berak oihu, maeu, *wild sex*, sexu animalia!». Testu jolastia, umoretsua da eta Cortazarrena bezala *minor* gisa klasifika daitekeena. Bai Atxagak bai Cortazarrek formatu txikian lan galanta egin dute.

Monogamo inperfektua, mugimenduaren artista, ekilibrista aparta, bizizale amorratua, eta animalien artean dandya da katua. Hark aukeratzeko du idazlea eta ez idazleak katua. ●